

IKASTARO ON LINE MASIBO ETA IREKIAK (MOOC), MiriadaX plataforman, DISEINATZEKO, PRESTATZEKO ETA ARGITARATZEKO IV. DEIALDIA (2017)

SARRERA

Informazio eta komunikazio teknologiak unibertsitateetan, bai irakaskuntzan bai ikerketan, apurka-apurka ematen ari den aldaketa baldintzatzen ari dira. Orintsu agertu den irakaskuntza ereduetako bat, Sarea eta informazioa beste era batera ulertzetik sortutakoa, MOOC ikastaroena da.

MOOC (Massive Online Open Course) ikastaroak urrutiko prestakuntzako ikastaroak dira, ezagutza modu irekian, doan eta online eskuratzea oinarritzat hartuta ahalik eta erabiltzaile gehienengana heltzea helburu dutenak, horretarako elkarlanean aritzeko metodologia parte hartzailea erabiliz.

Azken urteotan nazioarteko hainbat ekimen sortu dira era horretako prestakuntza eskaintzaren inguruan, eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak deialdi hau sustatu du bere online ikastaro eskaintza handitzeko.

1. DEIALDIAREN HELBURUA

UPV/EHUK mota honetako ikastaroak egiteko IV. deialdia argitaratzen du, online ikastaro masibo irekiak (MOOC) diseinatzeko, prestatzeko eta argitaratzeko eta horiek, UNIVERSIAREKIN 2015ko urtarrilean (MiriadaX plataforma) onartutako hitzarmenaren arabera ezartzeko eta ebaluatzeko helburuarekin.

2. ONURADUNAK

Eskaera egiteko momentuan UPV/EHUKo arduraldi osoko edozein irakaslek proposatu ahalko du 2017-2018 ikasturtean emateko online ikastaro bat.

Proposamenak taldeka egingo dira, taldeko zein kide izango den proiektuaren ardura izango duen koordinatzailea adieraziz.

Onartua den taldeak proposatutako online ikastaroa gutxienez 2 ediziotan eskaintzeko konpromisoa hartzen du.

3. MOOC MOTAKO ONLINE IKASTAROEN EZAUGARRIAK

MOOC izena ematen zaio osorik online ematen den eta ezaugarri nagusitzat irekia eta "masiboa" izatea dituen ikastaroari. Online ikastaroen eskaintzaren barruan UPV/EHUko MOOC ikastaro bat bereizten duten ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- **Irekia izatea:** ez da aurretik baldintzarik bete behar ikastaroan sartzeko eta edonork parte har dezake bertan; nahitaez egin beharreko gauza bakarra erregistratzea da, materiala eta baliabideak erraz eta doan eskuratu ahal izateko.
- **Online izatea:** ikastaro osoa urrutiko irakaskuntza modalitatean ematen da. Ordenagailua, interneteko konexioa eta nabigatzaile bat baino ez da eduki behar. Ikastaro hauek antolatzeke ardatz nagusiak dira ikasketa prozesuan laguntzeko ikus-entzunezko materiala erabiltzea, ikasleen aurrerapenak neurtzeko jarduera eta ariketak egitea, eta zalantzak azaldu eta ikastaroan modu aktiboan parte hartzeko eztabaida eremu bat eskaintzea.
- **Masiboa izatea:** ahalik eta erabiltzaile gehienengana heltzeko pentsatuta dago, aurretik ezarritako parte hartzaile kopuru mugaturik gabe. Hedapen zabala du eta interes eta helburu desberdinak dituzten ikasleei zuzenduta dago.
- **Autonomia ematea:** ikastaroaren egitura ikasleek modu autonomoan ikasteko pentsatuta dago, eta, baliabide ugari erabiltzen dira, besteak beste, bideoak, estekak eta dokumentuak, baita eztabaida eta komunikazio guneak ere.
- **Parte hartzailea izatea:** ikasleek ezagutzak eta esperientziak partekatu ahal izateko komunitateak sortzeko pentsatuta dago, elkarlanerako sareak eta proposatutako intereseke gaiei buruzko elkarrizketak sortzeko.

UPV/EHUko ikastaroen eskaintza bateratzeko asmoz eta ikastaro horiek definitu eta abian jartzeko, ikastarook II. eranskinean jasotako ezaugarrietara izan beharko dituzte.

4. BALDINTZAK

Eskaeran irakasle taldeek ondoko baldintzak onartu beharko dituzte:

Edukia originala eta norberak sortutakoa izan behar da eta proiektuaren ardura duen irakasleak bermatu egin behar ditu

argitaratuko den materialaren egile eskubideak. Salbuespen modura, posible da norberak sortutakoak diren eta OCW atarian argitaratu diren baliabideak erabiltzea, betiere, Creative Commons lizentziarekin.

Ikastaroa emateko erabiliko diren materialak plataforman argitaratzeaz gain, materialak UPV/EHUK eduki irekietarako dituen erakunde atarietan argitaratu ahal izango dira.

MiriadaX plataformaren ezaugarriak direla eta, ikastaroak gaztelaniaz edo ingelesez gauzatuko dira. Laster UPV/EHUK Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetan argitaratzea ahalbideratuko duen berriazko plataforma eskuragarri jarriko du.

Eskaerek proiektuaren ardura izango duen koordinatzailea Saileko Zuzendariaren bermea eduki beharko dute.

5. AURKEZPENA ETA EPEA

Eskaerek proposatutako online ikastaroari buruzko oinarritzko informazioa - I. Eranskinean adierazitakoari jarraikiz- eta proiektuaren ardura izango duen koordinatzailea Sailaren bermea eduki beharko dute.

Deialdia Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordetzaren iragarki taulan eta eCampusaren (<http://www.ehu.eus/eu/web/ecampus>) web orrian argitaratuko da. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 6tik 26era (biak barne) izango da.

Eskaerak UPV/EHUko Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordeari zuzenduko zaizkio. Eskaerok Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako campusetako erregistro orokorretan aurkeztu ahal izango dira, hau da, UPV/EHUren 2007ko maiatzaren 28ko Erabakian aipatutako bulegoetan (2007ko abuztuaren 3ko EHAA); edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legeko 38.4 artikuluari jarraikiz.

Ikastaroen edizioa bukatu ondoren, lehen edizioa, 2017-18 ikasturtean zehar eskainiko da.

6. AUKERAKETA PROZEDURA

Epe barruan eta behar bezala jasotako proposamenak horretarako sortutako batzorde batek ebaluatuko ditu. Batzordea osatuko dutenak honako hauek izango dira:

Presidentea: Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta
Kulturgintzaren arloko erretoreordea
Idazkaria: eCampuseko zuzendaria (UPV/EHUko Campus Birtuala)
Kidea: Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuko zuzendaria
Kidea: online ikastaroetan esperientzia duen irakasle
Kidea: eCampuseko teknikari bat

Batzordeak jasotako proposamenak ebaluatuko ditu honako irizpide
hauen arabera:

- UPV/EHUko online ikastaroei eskatzen zaizkien ezaugarriekin
bat etortzea (II. Eranskina)
- Ikastaroaren proposamenaren diseinua eta egokitasuna
- Online ikastaroaren egitura
- Irakasle taldearen gaitasuna, esperientzia eta curriculum
- Ikus-entzunezko baliabideen eta ikus-entzunezkoen erabilera
egokia
- Proposamenaren originaltasuna eta berritasuna

Proposamen guztietatik, gehienez zortzi (8) aukeratuko ditu
Batzordeak.

7. DEIALDIAREN EBAZPENA

Aukeraketa egin behar duen batzordearen proposamena ikusi ondoren,
Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko
erretoreordeak deialdia ebatziko du eta aukeraketaren emaitzaren
berri emango du hura unibertsitateko webgunean argitaratuta 20 egun
naturaleko gehienezko epean - eskaerak aurkezteko azken egunetik
hasita- (<http://www.ehu.eus/eu/web/ecampus>).

Esleipen erabakiaren kontra aukerako berraztertze errekurtsua jarri
ahal izango da hilabeteko epean erabakia argitaratu eta biharamunetik
aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal
izango da zuzenean Bilboko Administrazioarekiko Auzietako
Epaitegian, hilabete biko epean, Estatutueta 160. artikuluari lotuta
Administrazioarekiko Auzien Eskumena Arautzen duen uztailaren
13ko 29/1998 Legeak dioenaren arabera.

8. IKASTAROAK GARATU ETA ABIAN JARRI

UPV/EHUko eCampusak (UPV/EHUko Campus Birtualak)
aukeratutako proiektuen garapenean laguntza eskainiko du.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINITASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

eCampus

Aukeratutako irakasle taldeek hiru hilabete izango dituzte gehienez ikastaroak garatzeko. eCampusek irakasle taldeekin gutxi gorabeherako programazioa ezarri ahal izango du, zerbitzuaren baliabideak hobekien aprobetxatzeko asmoz. Edonola ere, ikastaroak prest egon beharko dira 2017-18 ikasturteko bigarren lauhilekotik aurrera ezartzeko.

MiriadaX plataforman argitaratzeko eCampus Zerbitzuaren aholkularitza eta laguntza izango dira. Besteak beste, bideo edo/eta tutorialen grabazioan (polimedia gela) edo material grafikoaren hobekuntzan euskarria izango dute.

Behin ikastaroak garatutakoan, ikastaroaren koordinatzailearen sailak txostena egin beharko du ikastaroa abian jarri aurretik. Sailaren aldeko txostena eta, ondoren, hasierako aukeraketa egin duen batzordearen oniritzia lortu duten ikastaroak baino ez dira abian jarriko.

9. AITORPENA

Online ikastaroetan parte hartzen duten irakasleek dagokien aitorpenerako eskubidea izango dute, eta eskubide hori gauzatzeko, diploma bat emango zaie. Aitorpena parte hartzaile bakoitzari egingo zaio proiektua bukatutakoan.

Leioa, 2017ko ekainaren 2an

Idoia Fernandez Fernandez
Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko
erretoreordeak

I. ERANSKINA. MOOC motako online IKASTAROAREN FITXA

Ikastaro bakoitzaren proposamenarekin batera online ikastaroari buruzko informazio garrantzitsua aurkeztu beharko da, jarraian adierazitakoaren arabera:

DATU PERTSONALAK:

- Proiektuaren koordinatzailea
- Elkarlanean arituko den taldea
- Parte hartuko duten irakasleen curriculum, batez ere, e-learningean duten esperientzia nabarmenduta

MEMORIA:

Izenburua:
Ikastaroaren edukiaren laburpena (gehienez 10 lerro):
Proposatutako gaiak duen interesaren justifikazioa (gehienez 30 lerro):
Ikastaroa nori zuzenduta dagoen:
Jakintza arloa(k):

Dagoeneko beste unibertsitate batzuetan edo on line ematen diren antzeko online ikastaroak:
Aurreikusitako hasiera data:
Iraupena (asteetan):
Ikastaro bakoitzerako aurreikusitako edizioak:
Asteko lan/ikasketa zama:

Irakaslearen edo irakasle taldearen ibilbidearen deskribapen laburra (gehienez 8 lerro):
Ikastaroa osatzen duten moduluen izenburuak eta deskribapen laburra (gehienez bi lerro modulu bakoitzeko):
Gomendatutako aurretiko ezagutzak:
Gomendatutako irakurgaiak:
MOOC ikastaroaren antolaketa (ikus-entzunezko edukien eta laguntza edukien egitura, eta ebaluazio kopurua eta motak):
Nabarmentzekoak diren MOOC ikastaroaren beste ezaugarri batzuk:

II. ERANSKINA. IKASTAROEN OINARRIZKO EGITURA

1. Iraupena eta lan-zama

Ikastaroek gutxienez lau aste iraun beharko dute, eta, gehienez, hamabi. Gomendagarriena ikastaroak sei astekoak izatea da. Irakasle taldeak ikastaroa gutxienez bi ediziotan eskaintzeko konpromisoa du.

Ikasleak ikastaroari eskaini beharreko denbora ez da izan behar asteko bost ordutik gorakoa.

2. Egitura

Online ikastaroa moduluka antolatuta egon beharko da eta modulu horiek modu argi eta orekatuan egituratua egon beharko dira, ikastaroan parte hartzen duten erabiltzaileek ikastaroaren edukien eta baliabideen jarraipena errazago egin dezaten.

Astero modulu bat emango da.

3. Baliabideak eta Moduluak

Edukiak eta baliabideak irakasle taldeak gehituko ditu MiriadaX plataformara. Behar izanez gero, eCampus Zerbitzuaren laguntza izango da.

Modulu bakoitzak, nahitaez, honako hauek eduki beharko ditu: Ikus-entzunezko materiala, laguntza material teorikoa eta ebaluazio sistema

- **Ikus-entzunezko materiala:** moduluaren edukiak gehienbat ikus-entzunezkoak izan beharko dira, azpтитuluekin, eta irakasleak edo irakasle taldeak egin beharko du kontaketa. Ikus-entzunezko materiala grabatzeko, eCampusak beharrezko diren instalazioak ditu, baita ikastaroak prestatu behar dituzten irakasleei laguntzeko langile espezializatuak ere.
 - o Modulu bakoitzaren ikus-entzunezko edukiek 30 eta 90 minutu bitartean iraun behar dute (batez beste, 60 bat minutu). Moduluetak bideo bakoitzak 3 eta 12 minutu bitartean iraun behar du.

- Irakasle taldeak eCampusaren laguntza izango du horiek egiteko.
- **Laguntza material teorikoa:** irakasle taldeak ikus-entzunezko materialaren edukia osatuko duen dokumentazio lagungarria eman beharko du, hala nola, kanpoko estekak, argitaratutako fitxategiak, irakurgaiak, eta abar.
Oro har esanda, gutxienez bi baliabide eman behar dira bideoke hogeita hamar minutuko.
- **Ebaluazio sistema:** modulu bakoitzaren bukaeran ikastaroan parte hartzen dutenek modulu horretan lortu dituzten ezagutzak ebaluatzeko sistema bat ezarri ahalko da. Moduluaren bukaeran ebaluazioa egiteko sistema hau, beste ebaluazio ariketekin osatuko da.

4. Zero modulua

Aurrekoaz gain, ikastaroak zero modulu bat non, ikastaroan zehar landuko dena laburbiltzen duen bideoa izango den. Horrez gain, modulu honetan ikastaroan parte hartuko duten ikasleek dituzten ezagutzak ebaluatu ahal izango dira, irakasle taldeak jakin dezan ikasleen hasierako maila zein den.

5. Komunitatea

Ikastaroan parte hartzen duten ikasleen arteko komunikazioa sustatzeko eta ikasleok dituzten ezagutzen trukerako eztabaidak bultzatzeko, irakasle taldeak eztabaida foro bat sortu beharko du. Eztabaida foroaz gain, irakasle taldeak elkarlanean aritzeko eta parte hartzeko beste komunikazio tresna batzuk ere eskura izango ditu, hala nola, bloga, izena eman dutenei e-mailak bidaltzeko banaketa zerrenda, wikia, eta abar.

6. Jabetza intelektuala

MOOC ikastaroen izaera irekia dela eta, plataformako ikastaroetako material guztia Creative Commons lizentziapean argitaratu beharko da, nahitaez. Irakasleak edo irakasle taldeak modu askean erabaki ahal izango du bere edukiak Creative Commons erako zein lizentziapean argitaratuko diren.